



ALKATEGAIEN ARTEKO DEBATEA

Andoaingo EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EE-ko zerrendaburuen arteko debatea Bastero Kulturgunean. Maiatzaren 15ean, asteazkenarekin, 19:00tan hasita / 5

Santakrutzak, festazale askoren gogoan

Andoaingo ospakizunak amaitu dira, baina ez haren oihartzuna. Sei egunez dozenaka ekitaldi antolatu dira, eguraldi txarrak oztopatu ez dituenak / 6-11



Nekane Orkaizagirre urnietarra Greziako errefuxiatuen kanpalekueetatik itzuli da / 2-3



Antia Literatur lehiaketako sari banaketa ekitaldia, Urnietako Saroben / 15



Larrarte Andoaingo sagardo lehiaketan nagusitu zen, Urnietako Setien eta Eularen aurretik / 11



MAIATZAK 24, OSTIRALA

17:30 **URNIETA** Egape ikastolako jolastoki estalia

AURRE SALMENTA: Maiatzaren 6tik aurrera.

HERNANI
• Leokadisti. Urbieta kalea, 6.
URNIETA
• 2KN okindegia. M.Yurramendi 2, udaletxearen ondoan.
ANDOAIN
• Aiurri. Arantzibia plaza.
• Ernaitza liburudenda. Zumea kalea

SALMENTA EGUNEAN BERTAN: 16:30. Egape ikastolako jolastokiaren atarian.

7€

Antolatzaile
AIURRI
Laguntzaile





Nekane Orkaizagirre urnietar gaztea. AIURRI

"Gizatasunik ez duen espezie bereko gizakiak gara"

NEKANE ORKAIZAGIRRE BOLUNTARIOA ERREFUXIATUEN KANPALEKUETAN Urnietarrak Greziako Samos uhartean hiru aste egin zituen otsailean, errefuxiatuei laguntza ematen. Errefuxiatuak merkantzia huts gisa erabiltzen direla salatu du

Andoni Urbistondo URNIETA

Bi hilabete luze daramatza dagoeneko etxean, baina ahazten zaila den zerbait ikusi eta ahaztu ezin duenaren aurpegia dauka Nekane Orkaizagirrek (27

urte, Urnieta). Bidaiatzeko zalelasunak Atenasera eta Samos uhartera eramaneen zuten otsailean, Greziara, errefuxiatuei laguntza eman asmoz. Lagundu du, eta bueltan da, berriro itzuliko dela

konbentziturik. Gure gizarte arreratueta txorakeriaz arduratzen garela dio, zer jan edo zer jantzi ez duten milaka lagunen egoera penagarria oharkabean utziz.

Nekane beti izan du garbi errefuxiatuen arazoa lehen pertsonan bizitzeko gogoia zeukala, "eta neguan laguntza gehiago behar dutenez, eta nik ahal nuen, bertara joatea erabaki nuen". Halako batean katilu solidario bat erosi zuen, harremanetan jarri elkarte batekin, "eta han lanean ari diren elkarte ezberdinen informazioa eman zidaten. Nire kabuz ikertzen hasi nintzen, eta halaxe topatu nuen Refugee4refugees erakundea, Gasteizko lagun batzuen bitartez". Siriako errefuxiatu batek sortutako elkarte da, eta horrek erakarri zuen Nekane. Errefuxiatuek lagundu eta parte hartzen duten erakundea da, nahiz eta koordinazioa errefuxiatuak ez direnak egin. Elkarte horrek Samos uhartean laguntza eskatzen zuten, eta Nekane dioenez, "hango berri gutxi dago. Lesbos esaten baduzu, jende gehienak entzun duen izena da, errefuxiatu guztiak ezagunena baita, baina Samos-en eta beste tokietan ere badaude, antzeko beharrek".

Nekane Atenasen egin zuen lehen geltokia. Bertan eraikin okupatu batean egon zen, City Plaza izenekoa. "Greziar, krisi ekonomikoa piztu zenean, hainbat negoziok hondoa jo zuten, eta Atenasko hainbat ezkerreko mugimenduk hotel bat zena okupatu zuten, errefuxiatuei laguntza eta bizitza duin bat emateko asmoz. Hotel horretan 500 bat errefuxiatu bizi direla esango nuke. Boluntario gisa joaten zara, zertan laguntzeko prest zauden jakinarazi, eta beharrak asetzen dira: sukaldetako lanak, garbiketa lanak...". Astebete egon zen bertan, hainbat zereginetan. Ingelese, noski, hainbestean. "Esperientzia oso ona izan zen. Errefuxiatuak ezagutu nituen, eta haien hizkuntzako oinarritzko hitz batzuk ikasten saiatu sirieraz edo farsi-eraz" (Persiako hizkuntza).

Astebete inguru egin zuen City Plaza eraikin okupatuan, baina lehenen egunean ohartarazi zuten City Plazako egoera, eta Samos uhartera erabateko ezberdina dela. City Plazan "errefuxiatuek oinarritzko beharrak asetuta dituzte: jana, ohe bat, garbiketa, ACNUR-ek ematen dien diru asignazio txiki bat... Ezin dute lanik egin, edo ikasi, baina Samos edo Lesbos-

en baino askoz hobeto daude". City Plazak beste erakundeekin laguntzari esker irauten du, boluntarioen ekarpenei esker. Ekimen ugari antolatzen ditu dirua bildu, eta horrekin jantziak eta beste lortzeko. City Plazako egonaldiaz, "24 orduz segurtasunaz arduratzen diren kideak daudela harritu ninduen gehien, hala egin izan ez balute polizia errefuxiatuak kaleratzera joan zitekeelako".

Egoera penagarria Samos uhartean

Atenasetik Samos uhartera joan zen Nekane, ferry-an. Bertan lehen ezustekoa. "Paperak zeukan Siriako errefuxiatu batekin nindoan, eta Poliziak dokumentazioa eskatu zion. Gero dena konpondu zen" (Samos Turkiako kostaldetik gertu dago, Atenastik 11 ordura ferry-an). Samos-en boluntarioen etxean egon zen: "Prestatua dago, baina errefuxiatu guztiak urrun. Auto batean mugitzen ginen".

7.000 biztanleko herria da biztanletsuena Samos uhartean. Errefuxiatu kanpamendua 700 lagunentzako prestatua dago, baina 5.000 lagun baino gehiago pilatzen dira. "Eraikuntzarako edukiontzia horietako batzuetan bizi dira, kartzela batean baleude bezala", dio Nekane. Edukiontzietan bizi direnak elektrizitatea badute, baina besteak ez. Iritsi berriei "kontrola pasa eta leku bat bilatzeko esaten diete, besterik gabe. Ez kanping dendarik, ez ezer. Oso inpresio gogorra izan zen lehenengo hura, arratoientzako kanpalekua zirudien, umeak egoera penagarrian zeudelako".

Errefuxiatuak laguntzera joaten direnek, gainera, errealtate gordin batekin egiten dute topo: "Hara bertaraten garen beti egiten dizute irribarre bat, badakitelako handik ateratzeko daukaten itxaropen bakarra gu garela, haien egoera salatu eta handik ateratzeko ate bakarra garela. Esango nuke ikusten duguna ez dela benetakoa egoera, ez dutelako nahi boluntarioek beraien miseriak ikustea. Etsipenak jota bizi dira, ez baitute egoera lagarri hartatik nola ihes egin zirrikiturik ikusten. Gu geu ere gure amorrua, haserre estaltzen saiatzen gara, zeren eta laguntzera joan eta tristura erakus-

ten baduzu, zer pentsatuko dute gu baino askoz okerrago bizi diren errefuxiatuek...". Halako poza sortzen saiatzen dira boluntarioak, "nahiz eta barrutik oso izorratuta egon".

Nekane Free shop delako dena batean aritu zen laguntzen, herrian, ez kanpalekuan, berokiak, eta emakume eta haurrentzat barruko jantziak eta lo zakuak banatzen -bada proiektu bat martxan, denda hori gizonentzat ere izan dadin-. Hiru aste egon zen bertan. Eguraldia hotza omen zen. "Guk etxe barruan bi zaku erabiltzen genituen, pentsa. Ezin genien janarik eman errefuxiatuei, jana Greziako Armadak ematen die, arrez beterikoa askotan". Ezin zuten zazpirehun laguneko kanpamendu horretan sartu, baina inguruan hazten joan den beste kanpamendu ez ofizialean laguntza emateko aukera izan zuten: koltxonetak eta lo zakuak banatu....

Ez zuten hartuemanik eduki Armadako jendearekin. "Bertako herritarrek bai, Free shop horretarako produktuak behar genituelako, eta bertakoek errefuxiatuen aurkako jarrera argia dute. Guri galdetzen ziguten, ea zergatik zeuden hor, zergatik ez zuten martxa egiten eta antzekoak... Ahal izango balute joan egingo lirakeke, ez?". 2016an Europar Batasunak eta Turkiak akordio bat sinatu zuten, eta akordio horren arabera, errefuxiatuek ezin dute kanpamendutik irteten. Asiloa lortu eta errefuxiatu kanpamenduetatik irteteko halako elkarrizketa sistema arautu zuten, baina plangintza hori oso mantso doa. Lehen elkarrizketak 2020 urterako eman dituzte, eta elkarrizketa ondoan agintariekin erabakitzen dute errefuxiatu horri paperak eman edo ez. "Pentsa, zer nolako panorama...", hausnartzen du Nekane. "Orain bi-hiru urte atzera prozesua askoz errazagoa zen, orain ia ezinezkoa da errefuxiatu izaera lortzea".

"NAHIKO NUKE EZAGUTU DITUDAN ERREFUXIATUAK DAGOENEO GREZIAN BERTAN EZ EGOTEA"

"Errefuxiatuak merkantzia huts bilakatu dira"

Gizaki bezala, ikusi dituen argazkiak ze hausnarketa eragin ote dioten galdetu, eta gordin-tasunez hitz egin du urnietarrak: "Zakurrak baino okerrago tratatzen ditugu gure espezie berekoak, eta gizatasunik batere ez daukagu".

Eta kritika latza arduradun politikoei: "Mugetako segurtasuna bermatzeko diru pilo erabiltzen da, eta bitartean, gizakiek itsasoan hiltzen jarraitzen dute. Ondo gogoan dut zazpi hilabeteko haurra zeukan emakume bat etorri zitzaigula, arratoiek ezpainetan koska egin ziotela, ezin zuela jan eta inpresioa oso gogorra da...". Egoera konpontzen saiatzea hain zaila ez denean, Nekaneren ustez: "Gauza txikiak eginez asko hobetu daiteke haien egoera: negua datorrela jakitun, banatu koltxonetak eta lo zakuak, ez?". Mendebaldeko jendarteari erreparatu du, "gu txorakeriengatik kexatzen gara", adierazteko. "Ez zaigu ezer falta hemen".

Errefuxiatuak "merkantzia, negozio huts gisa erabiltzen dituzte, gerra batetik ihesi datorren jendea delako, eta Grezia eta Turkiak Europar Batasunetik dirua jasotzen dute errefuxiatuak kontrolatuta mantentzeko, epe motz edoertainean inolako konponbiderik bilatu gabe. Greziako uhartetan hamabost mila errefuxiatu daude, eta Grezia osoan hiru-rogeita hamabi mila. Europak ezin al ditu hirurogeita hamabi mila errefuxiatu horiek hartu, hainbeste herrialde izanda? Horrek haserretzen nau".

Nekane bera etorkin sentitu izan da Samos uhartean, baina Europako biztanlea dela ziurtatzen dion agiriak dituen etorkina. Buelatuko omen da Greziara: "Ziur nago". Samos uhartera, ziur aski, asmo honekin: "Nahiko nuke nik ezagutu ditudan errefuxiatuak dagoeneko bertan ez egotea, baina badakit zaila izango dela".

"DUELA BI-HIRU URTE ERRAZAGOA ZEN, ORAIN IA EZINEZKOA DA ERREFUXIATU IZAERA LORTZEA"



"Mugetako segurtasuna bermatzeko diru pilo bat erabiltzen da, eta bitartean, gizakiek itsasoan hiltzen jarraitzen dute. N.O.



"Gehien gustatzen zaidana proiektuak dira eta bertan taldekideekin sortzen den erlazio estua"

Maialen Beristain (21 urte, Urnieta)
Energiaren Ingeniaritzako 4. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.



Zergatik aukeratu zenuen Energiaren gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Betidanik gustatu izan zait zientzia arloa, gehienbat fisika eta matematika. Beraz, ingeniari-gradu bat egin nahi nuela nahiko argi nuen. Ingeniaritza mota aukeratzeko orduan energiaren gradua izan zen interesgarriena iruditu zitzaidana. Energiaren sorkuntzari buruz ikasteko gogoia nuen, metodo berriak, berziz-garriak.. Etorkizunean arlo horretan aurrerapen asko egin behar direla iruditzen baitzait.

Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen enprekin duen gertutasunagatik, metodologiagatik, etxetik unibertsitate dagoen gertutasunagatik eta irakasleen tratu pertsonalagatik.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso esperientzia aberasgarria izan da, gauza asko ikasi ditut bai arlo teknologikoan bai pertsonalean.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Irakaskuntza arloan etorkizunerantz salto handi bat dela iruditzen zait. Urte askotan zehar ez da ikasteko metodologia aldatu; irakasleak eskola eman, ikasleek apunteak hartu eta soilik azterketa gainditzeko helburuarekin ikasi.

Metodologia honekin gure kabuz ikasten dugu eta, modu honetan, kontzeptuak askoz hobeto barneratzen ditugula konturatzen gara. Proiektuetan aurretik emandako ikasgaiak baturik ikusteak eta emandakoa praktikan jartzeak motibazio handia suposatzen du.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana proiektuak dira eta bertan taldekideekin eta klaseko beste ikasleekin sortzen den erlazio estua. Kursoz pasatzeko metodologia aldatuko nuke baina dagoeneko hori aldatzen hasi dira.

Erasmusetik etorri berri zara. Zer nolako esperientzia izan da? Zer ekarpen egingo dizu etorkizunari begira?

Izugarritzko esperientzia da, mundu guztiak bizi beharko lukeena. Zeure burua ezagutzeko aukera paregabea. Gure bizitzak oso bideratuta dardela iruditzen zaigun arren ez da horrela, gu geu gara zer bide hartu nahi dugun aukeratzen dugunok eta edozein momentutan norabidea alda dezakegu.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Inoiz baino galduago nago, hiru aukera dauzkut buruan, lana bilatzen hasi, irakaskuntzako masterra egin edo nire modalitatean espezializatu. Horretaz gain, ez dakit hemen geldituko naizen edo atzerriara joango naizen.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



Omenaldi ekitaldia egin zuten haren izena daraman parkean. AIURRI

Lopez de Lacalle gogoan

ETak hil zuela 19 urte bete ziren, maiatzaren 7an. Andoaingo PSE-EEK omenaldi ekitaldia antolatu zuen

Xabier Lasa ANDOAIN

Lore eskaintza eta minutuko isiluneaz gain, adierazpenetako tartea izan zen. Maria Paz Artolazabal alargunak adierazi zuenez "guztion artean osatu beharko dugu bizikidetzaren gure herria, eta horretarako, beharrezkoa izango da nork bere

azterketa zorrotza egin dezan". Ekitaldira Alain semearekin bertaratu zen. Lainezek, bere aldetik, memoriaren aldeko apustua egin zuen: "Gorka Landaburuk esaten duen bezala, orria pasa bai, baina zer dioen irakurri eta gero". Ekitaldiak hedabideen arreta handia piztu zuen.



2015-2019 agintaldiari buruz

Agerikoa zen sintonia berezia zegoela, bereziki gizarte gaietan, Ganemos, Irabazi eta gobernu taldeko EH Bilduren artean. Baina aritmetikak ez zuen ezkerreko politikak garatzeko aukerarik ematen.

Korporazioko kide bat zinegotzi ez atxikia bilakatzeko emandako pausoak indar korrelazioan aldaketa ekarri zuen. Gauzak horrela, PSE-EAJ alderdiek osatutako gehiengo osoa bertan behera geratu zen.

Akordioa lortu genuen Ganemos, Irabazi eta zinegotzi ez atxikiak andoaindarren mesederako izango diren ezkerreko ekimenak aurrera eramateko. Hirurak elkarrekin indar erabakiorra izatera iritsi ginen.

2017an Udal aurrekontu proposamenari atxekimendua erakutsi genion, ekarpen ezberdinak eginez. Bestek

beste, etxegabetze arriskuan dagoen pertsonari doako laguntza juridikoa eskaintzea, parte hartzean eta gardentasunean konpromisoak lortzea, eta zerbitzuen publikazioan sakontzea.

2018rako gobernu taldearekin mami handiagoko Udal aurrekontua onartzeko akordioa lortu genuen. Proposamen hura PSE-EEren eta EAJ-PNVren aurkako botoekin onartu zen. Sinatu genuen akordio hartan honako hauek nabarmendu daitezke: inbertsioak hainbat ekipamenduetan, Doktor Huitziko parkea, eraikuntza lanak ikastetxe ezberdinetan, parte hartze prozesu baten bidez haur parkeak estaltzeko prozedura martxan jartzea, Udalaren jabetzakoak diren etxebizitzak eraberritzeko

aurrekontua, alokairu sozialerako bideratuko diren sei etxebizitza...

Zerbitzu publikoen pribatizazioa eteteko, kaleko garbiketa publikatzea erabaki zen. Eta, neurri askoren artean, politika fiskal justuago baten aldeko apustua egin da. Era berean, hondakinen bilketa selektiboan eman diren aldaketa esanguratsuak ahalbidetu ditugu.

2019rako akordioa baieztatu genuen, izaera sozialeko programak osatuz. Hala nola, "Ongi etorri eskolara" ekimena, pobrezia energetikoa saihesteko laguntzak, inbertsioak eta abar...

Azaldutako guztiak ezkerreko indar politikoen metaketaren beharra agerian uzten du. Hori dela eta, Elkarrekin Podemos hautes-zerrenda osatu eta babestu dugu.



Aiurri eskuragarri:
Ebeze etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



Andoaingo hiru alkategaien arteko debatea, Basteron



Alvarez (EH Bildu), Lainez (PSE-EE) eta Izagirre (EAJ-PNV) aurrez aurre, maiatzaren 15ean

Erredakzioa ANDOAIN

Aiurri astekariak alkate izateko aukera gehien dituzten hiru hautagaiak elkartuko ditu, Bastero kulturguneko ekitaldi aretoan. Arratsaldeko 19:00tan hasiko da, hurrengo asteazke-

nean. Eta sarrera doakoa izango da. Duela lau urte egin bezala, Aiurrik agintaldiaz eta etorkizuneko erronkez eztabaidatzeko aukera eskaini die Andoni Alvarez (EH Bildu), Maider Lainez (PSE-EE) eta Marijose

Izagirre (EAJ-PNV) hautagaiei. Aiurrik alderdiei bi baldintza jarri dizkie: Debatea euskaraz izatea, eta solaskidea zerrendaburua izatea. Andoainen babes politikoa gehien duten hiru hautagaiak Jon Ander Ubeda Aiurriko zuzendariaren esanetara arituko dira. Ekitaldia irekia izango da, eta euskaraz ez dakitenez aldi bereko interpretazio zerbitzua izango da. Jon Unanue eta Amagoia Lizaola itzultzaileak arituko dira langintza horretan.



Debatea maiatzaren 15ean izango da, asteazkenarekin, 19:00tan hasita. AIURRI

Urnietako EAJ-PNVren aurkezpen ekitaldia

Alderdi jeltzaleak alkatetzarako zerrenda aurkeztu zuen Lekaion egin zuen jendaurreko ekitaldian. Pagolak 2015-2019 legegintzaldian egin diren egitasmoak eta datorrenean gauzatzeko daudenak gogora ekarri zituen



Urnietako EAJ-PNV alderdiko hautes-zerrendaren aurkezpen ekitaldia. AIURRI

Xabier Lasa URNIETA

Maribel Vaquerok egin zituen aurkezpen lanak. Hautagaiei eta alkategaiari eskerrak eman zizkien "ez delako erraza izaten konpromiso hori hartzea udalgintzan, zure bizitzako orduak familiari kenduz, eta gainera, kontuan hartuta askotan jendea gehiago egoten dela kritikatzeko laguntzera baino". Mikel Pagola aurkezterakoan, honako hitzak erabili zituen: "oso langilea da, tematia, egitasmoak aurrera ateratzeko indarra jartzen dakiena. Herrigintzan aritu denean ezaugarri bat erakutsi izan du

batez ere: oso gertuko pertsona da, eta Urnietako justuago eta kohe-sionatuago baten alde jardun du. Kultura demokratikoa lantzen du, horretan sinesten duelako". Pagolak adierazi zuenez, 2015-2019 legegintzaldia etorkizuneko Urnietako definitzeko balio izan du. "Udal kudeaketari esker hainbat egitasmo aurrera ateratu dira. Besteak beste, Urrakako igogailua, euskaltegi berria, bilketa selektiboaren aldeko apustua, ongietorri saio inklusiboak, ingurua zaintzeko eta isurketak murrizteko Ergoingo saneamendu obra, Iruraingo biribilgune

berria... Baina amaitu gabe ere badaude hainbat proiektu martxan daudenak; horien artean, estatuko azpiegitura den tren geltoki seguru eta irrisgarriagoa egitea, Etenetako igogailua, eta kiroldegia eraberritua".

Ekitaldiari amaiera emateko, Joseba Egibarrek hitza hartu zuen. Kirolean jokatzaren diren joan etorriko norgehiakoen pare jarri zituen apirileko eta maiatzeko hauteskundeak, EAJko hautagaiak herri mailan zein Gipuzkoan eta Europan herritarren interesak defentsatzeko egokienak direla adieraziz.



AIURRI

EH Bilduko hautagaiak

Beterri-Buruntzako garapen agentziaren beharra defendatu dute eskualdeko alkategaiak: "Sei herriok sortuko dugun mankomunitatea. Aukera paregabea da, Lanbideren enplegu planak gure herrietara iristeko modua baita; edo GFAk bideratzen dituen egitasmo, laguntzak eta abar jasotzeko orduan. Gure herrietako biztanleek Gipuzkoako beste eskualdeetakoek zerbitzu eta aukera berdinak izan ditzaten".



Kanpainako hitzorduak

Maiatzak 10, ostirala

Urnietako EH Bildu:

18:30-20:30 Idiazabal kalean duten egoitza zabalduko dute, informazioa eman eta proposamenak jasotzeko.

Maiatzak 11, larunbata

Urnietako EH Bildu:

11:30-13:30 Egoitza zabalik izango dute, informazioa emateko.

Andoaingo PSE-EE:

11:00 Merkatu plazan izango dira.

Maiatzak 12, igandea

Andoaingo PSE-EE:

12:30 Ekitaldia Goikoplazan, Denis Itxaso eta Maider Lainezen parte hartzearekin.

Maiatzak 14, asteartea

Andoaingo Elkarrekin Podemos:

18:00 Ekitaldia Zumea plazan. Euriarekin, Ondarretan.

Maiatzak 15, asteazkena

Andoaingo EH Bildu, EAJ-PNV, PSE:

19:00 Aiurrik antolatutako debatea Basteron, hiru alkategaien parte hartzearekin.

Maiatzak 17, ostirala

Andoaingo EH Bildu:

18:30 Kotxe karabana.

Maiatzak 18, larunbata

Andoaingo EH Bildu:

14:00 Herri bazkaria Espigoian. Txartelak Irunberrin eta Bilgunean salgai.



Erreka jaitsieraren argazki eta bideo ikusgarriak aiurri.eus webgunean ikusgai daude. AIURRI

Jai giro ederreko Santa Krutz jaiak

Asteartetik igandera Andoaingo herrigunea ospakizunetan murgildu da. Egitaraua hitzordu klasikoez beterik dago, urtero-urtero auzotarren eta herritarren interesa bereganatzen dutenak. Euriak ere bere agerpena egin du jaietan

Erredakzioa ANDOAIN

Eguraldi txarrak ez du jaia baldintzatzea lortu, hitzordu guztiak aurrera eraman baitira. Auzo bazkaria Kale Nagusian egiteak bere xarma badu ere, Makaldegiko gune estalian egin zen. Euriaren beldur zaletuak uxatu bazituen ere, larunbat gaueko zezen suzkoa ateratu zen. Baita Santa Krutz peñako danborrada ere. Ordu batzuk lehenago, larunbat arratsaldean, euria gogotik ari zuen. Baina euri jakak ez zuen Koadrilen bazkalosteko kalejira zapuztu. Aurrera beti.




Zezen suzkoa astearte gauean, Santa Krutz elizaren aurrealdetik igarotzean. AIURRI


Pintxo onena, Basterokoa



Basterokoak, epaimahakideekin batera, txapeldun zirela jakin berritan. AIURRI



Amama Klaudia. AIURRI



Txalaka. AIURRI



Herri danborradan ekitaldia egin zuten, danborradari ekin aurretik. Besteak beste, Iñaki Igerategi herrikidea suhiltzaile lanpostura itzultzeko eskaera egin zuten. AIURRI



Auzo arteko herri kirol lehia

Sorabilla, Buruntza, Goiburu, Etxeberrieta eta Santa Krutz auzoetako ordezkariak txingatan, ingudean eta zaku karreran neurtu zituzten indarrak. Auzoen arteko herri kirol lehiako bigarren edizioaren hasiera izan zen. Bekoplaza herri kirolariez eta jarraitzailez lepo bete zen.



Muga. AIURRI



Txitibar. AIURRI



Txuribeltz. AIURRI



Gaztelutxo. AIURRI



Txindoki. AIURRI



Urkiola. AIURRI



Etxeberria Hiru. AIURRI



Tokitxo. AIURRI



Irunberri. AIURRI



Traiñerum. AIURRI



Ikurriñaren jaitsieran protagonista diren kide guztiek taldeko argazkia atera zuten, jaitsierari ekin aurretik. Udal Korporazioko kideak, txistulariak, eskopeteroak eta Udaltzain burua elkarrekin ageri dira. Lamberto Oterminek Pedro Rodriguezen lekukoa hartu zuen Andoaingo bandera eramateko orduan. Bestalde, azken jaitsiera izan zen Ana Carrere alkatearentzat eta Alberro, Rodriguez edota Unanue zinegotzientzat. AIURRI

Santa Krutz egun handia

Ikurriñaren jaitsiera, meza eta mezaren atariko eta osteko ospakizunak tradizio handiko ekitaldiak dira Andoaingo Santa Krutz jaietan. Ana Carrere alkateak azken aldiz eraman zuen aginte-makila, aterkipean egin zen jaitsieran



Lamberto Otermin udaltzain burua, Ana Carrere alkatearen aurretik. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Jaia ondo ezagutzen dutenei egitarauari begiratu gabe ere eza-guna zaio maiatzaren hiruko egitaraua. Osorik ez bada, klasi-koena bai: Ikurriñaren jaitsiera, txistularien eta dantzarien saioa, eskopeteroen irteera, meza, txakolin dastaketa... Eta nola ez, iazko jaietan pregoia eman zuen bluxadun koadrila. Urteak dira kaleak alaituz dabiltzala. Euren jaia egiteaz gain, jai giroa alaitzea lortzen dute. Auzo bazkariarekin, bakailao txapelketarekin eta kontzertuarekin osatu zen eguna.



Maiatzaren hiruan ezinbestekoak dira. Aterkirik behar ez duen taldea da. AIURRI



Urki dantza taldekoen artean dantzari aritu zen Esti Mujika zinegotzia. AIURRI



Txukunak taldea, Udal musika eskolako kidez osaturikoa. AIURRI



Rebeka Gestoso, Fino's Band taldearekin.



Bizikleta festa, Andoaingo Txirrindulari Eskolako en eskutik. AIURRI

Auzo bazkaria Makaldegian

Urtetik urtera indartzen ari zen auzo bazkaria, eta aurtengoa izan da. Eguraldiagatik, ziurrenik. Bere xarma badu Kale Nagusian egiteak. Aurtengoan, ordea, Jai Batzordeak bazkaria Makaldegiko gune estalian egiteko erabakia hartu zuen.



Bakailao txapelketa



Zumeatarra elkarteko ordezkariak izan dira aurtengo garaileak. AIURRI



Batzokikoak bigarren sailkatu ziren. AIURRI



Peña Santa Krutz elkartekoak, hirugarren. AIURRI



Kotoi elkartea. AIURRI



Ontza elkartea. AIURRI



Andoaindarra elkartea. AIURRI



Hogar Extremeño elkartea. AIURRI



Irunberri elkartea. AIURRI



Soinuak musika eskolako ikasleek kalejira antolatu zuten, igande arratsaldean. Kalez kale ibili eta gero, azken emanaldia eskaini zuten plazan. Musika eta dantza saioak goizetik izan ziren Zumea plazan. Goizean, Urki dantza taldekoen eskutik. Eta arratsaldean, berriz, Soinuak taldearen eskutik eta plaza dantza taldearen eskutik. Igande iluntzean amaiera eman zioten jaiari. AIURRI

Jaien amaiera, eguzkipean

Giro eguzkitsuarekin amaitu ziren festak, kaleak herritarrez betez. Zumea plazan egin zituzten ekitaldi jendetsuenak, hala nola, sagardo dastaketa eta talo jatea. Arratsaldean bertan amaitu ziren jaiak, plaza dantzak saioarekin



Urki dantza taldeko saioa izan zen Zumea plazako lehen ospakizuna, igandean. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Seigarren eta azken eguna eguzkitsua izan zen, eta horri esker kaleak eta plazak herritarrez bete ziren. Goizean goiz gaupasa egindakoak topa zitezkeen kalean. Baita lanean hasteko prest zeuden goiztiarrak ere. Ez baita ahaztu behar talo jatea edota sagardo lehiaketa antolatzekeo boluntario askoren laguntza behar izaten dela. Gaupaseroen bilkura ez zen aurreko urteetan bezain arrakastatsua bilakatu, parrandan zirenak taberna ingurutik ateratzea kosta egin zelako.



Talo jatea eta sagardo dastaketa Zumea plazan, igande eguerdian. AIURRI



Plaza dantzak zaletu ugari erakarri zituen Zumea plaza. AIURRI



Jaietako larunbat gauean ateratzen da Peña Santakruz elkarteko danborrada.



Aitor Amutxastegi eta Antonio Goya, Peña Santa Krutz danborradako klasikoak.



Larrarte txapeladuna. ZUMEATARRA



Udal Musika Eskolako Bandak kalejira egin zuen, emanaldiari hasiera eman aurretik.



Mugaz taldeko kideak, Mirari Irurzun zuzendariarekin, kontzertuaren ondoren.

Sagardo lehiaketa eta dastaketa

Hemeretzi sagardogilek parte hartu zuten 2019ko sagardo txapelketan.

Aurten hiru sagardogile nabarmendu dira:

1. Larrarte (Astigarraga).
2. Setien (Urnieta).
3. Eula (Urnieta).

Lehiaketa egiten zen bitartean, jendetza hurbildu zen dastaketaz gozatzeraz. Jatekoa aukeran zegoen: Taloa, urdaiazpikoa eta txorixo pintxoak.

Koadrilen eguna



Ehunka lagun elkartu ziren Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian. AIURRI



Jolasak, bazkaria, kalejira eta karaokea antolatu zituzten koadrilen egunean. AIURRI



Arratsaldean kalejiran zebiltzan gazteak arkupetan babestu ziren. AIURRI



Gora Kaletxiki txarangak lagunduta, koadrilak jolasean aritu ziren. AIURRI



Setien, bigarren. ZUMEATARRA



Eula, hirugarren. ZUMEATARRA



Gorka Urigoitia jokalaria, erasoan. UKE

Bi garaipen igoerako ligaxkako lehen bi jardunaldietan

ESKUBALOIA Senior mailako lehen taldeak Nazional mailako igoerari ezin hobeki ekin dio

Erredakzioa URNIETA

Eskubaloiko taldea denboraldi amaiera polita egiten ari da. Emozio handikoa baita igoerako ligaxkan aritzea. Eta pozgarria da herritarren babes zabala eskuratzea. Giro horretan, Urnietako eskubaloiaz gozatzen ari da.

Lehen jardunaldia

Bergara-Soraluze 20-25 Urnietak

Eskubaloiko Urnietak KE lehen taldeak hasiera ona eman zion Nazional 2. mailara igotzeko ligaxkari, maiatzaren lehen Bergaran irabazi eta gero. Taldeak zaletuen jokabidea eskertu zuen, dozenaka joan baitziren Bergarara. Seriotasun handiko partida jokatu zuen Urnietak, defentsan serio lan eginez eta erasoan golak sartuz. Atsedenaldira sei goleko aldearekin iritsi ziren (6-12). Bigarren zatian Bergara-Soraluze taldeak indarra eginez markagailuan nabarmen gerturatu zen (17-18). Erasokor ari

ziren etxekoak, eta urnietarrek defentsa onaren bitartez erasoak geldiarazi zituzten. Partida irabazteko urduritasunak jota, Bergarakoek akatsak egiten hasi ziren. Urnietarrek zuhur eta hotz jokatzaz abantaila handitu zuten garaipen polita lortu arte.

Bigarren jardunaldia

Urnietak 21-20 Legazpi

Zaletuen garrantzia. Egia galanta, horrelako partidatan. Ezinbestekoa izan zen euren babesa, hain partida orekatuan. Garaipena azken segunduetan sartutako penaltiari esker iritsi zen.

Hirugarren jardunaldia

Igande honetan Lezon

Munttarperen aurkako partida igande honetan jokatu da, goizeko 11:30ean hasita. Emozio handiko partida izango da, Munttarpe eta Urnietak baitira bi partidak irabazi dituzten talde bakarrak.



Iosu Pagola hegaletik aurkariaren ate barrura jaurtitzeko saiakeran. UKE

Erregional Preferente mailako azken partidak, asteburuan



AIURRI

EMAITZAK. 29. JARDUNALDIA

Euskalduna 1-0 Baskonia

Mariño 1-0 Urnietak

SAILKAPENA

1. Euskalduna	74
2. Touring	65
3. Mundarro	59
4. Vasconia	58
5. Tolosa	51
6. Billabona	48
7. Santo Tomas	41
8. Roteta	40
9. Hernani	37
10. Ostadar	35
11. Dunboa	29
12. Gure Txokoa	29
13. Urnietak	29
14. Mariño	25
15. Orioko	25
16. Trintxerpe	18

30. JARDUNALDIA

Ostadar-Euskalduna

Larunbata, 11. 12:45.

Urnietak-Billabona

Larunbata, 11. 17:30.

Denboraldia bukatu da Ganbara saski taldeentzat

EMAITZAK

Ganbara Junior-Ordizia	40-53
Ganbara Inf. Handi-Luberri.	36-29
Larramendi-Ganbara Inf. Txiki	57-20

PARTAIKETZA LIGA. SAILKAPENA

1. Bergara-Soraluze	19
2. Debasket	18
3. Ordizia	17
4. BKL	16
10. Ganbara Junior	12
11. Añorga	10



Joan zen igandean mendi irteera antolatu zuten. EUSKALDUNA

Euskaldunaren mendi irteera Santa Krutz jaietan

MENDIZALETASUNA Sorabillako eta Belkoain aldeko naturguneaz gozatzeko aukera baliatu zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Mendi txangoa egitea herriko jaiak ospatzeko modu bat izan daitekeela erakutsi nahi du Euskalduna mendigoizale elkarteak. Sorabilla auzoko naturaz gozatzeko eta inguruko parajeak ezagutzeko aukera eman zuen igandeko irteerak.

Belkoaingo gailurrera igo ziren lehenbizi, eta atsedenaldira egin eta indarrak berritu ostean, Erdoxtako karobira eta telegrafo-ara abiatu ziren.

Euskaldunaren egoitzan haiketako eder batekin eman zioten amaiera goiz parteko irteerari.

Kopako finala asteburuan

FUTBOLA Granadan jokatu da Kopako finala, At. Madrid eta Realaren artean. Finala iluntzeko 20:30ean hasiko da, eta esan gabe doa Nahikari Garcia urnietarrentzat partida garrantzitsua izango dela. Partida erabakior asko jokatu ditu selekzioarekin eta Realarekin, baina hauxe izango da garrantzitsuenak. Urnietarren eta andoaindarren animoa ez zaio faltako.



AIURRI



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



GAZTELEKU

Andoain-Villabona, itzulerako partidak Arraten

HERRIARTEKOA Joanekean Andoain herriak 2-1 irabazi zion Villabonari. Kadetetan Eneko Beloki eta Iker Uria billabonatarrei gailendu zitzaizkien (22-16). Jubeniletan ere garaipena Urtzi Artola eta Eneko Gomez

andoaindarrentzat izan zen (22-9). Nagusien mailan, billabonatarrek irabazi zieten Aritz Eskudero eta Imanol Usandizagari (22-11). Ostiral honetan itzuliko partidak jokatuko dituzte Arraten, 20:15etan hasita.



LEIZARAN

Garrantzia handiko partida Donostian

ESKUBALOIA Leizaran Ernio Inmobiliaria senior mailako mutilen taldeak igande honetan partida erabakiorra jokatu du Donostiako La Salle kiroldegian, Saieko KE Horia taldearen aurka (11:30). Garrantzia

handikoa da, liga amaitzeko hiru partida bakarrik falta baitira. Andoaindarrek eskura dute Gipuzkoako 1. mailara igotzea, eta igande honetan aurkari zuzenaren aurka lehiatuko dira. Klubak animatzera joateko deia luzatu du.



Iturzaeta memoriala, iazko edizioan. AIURRI

Iturzaeta herrikoia asteburu honetan abiatuko da

PALA Mutilen arteko lehiaketa 26 bikoterekin abiatuko da. Nesken mailan 7 bikote lehiatuko dira

Erredakzioa ANDOAIN Egues-Eskudero II eta Sergio-Amondarain bikoteen arteko partidarekin, larunbat honetan Sorabillan hasiera emango diote 2019ko binakako pala txapelketa herrikoiari. Goizeko 10:00etan hasita lau partida jo-

katuko dira. Arratsaldeko 16:00tan hasita, bederatzi partida gehiago jokatu da. Lagunarteko giroan joko polita ikusteko aukera dago. Nesken mailako txapelketa maiatzaren 18an abiatuko da, 7 bikoteren parte hartzearekin.

Laster Herriartekoan

PALA MOTZA Andoain taldeak laster ekingo dio larruzko paleta eta pala motzeko Herriartekoari. Bi jardueretan, gainera, aurkari berdina izango dute: Erreterria. Lehen partida maiatzaren 19an jokatu dute Arrate pilotalekuan. Beraz, Andoain ez da soilik eskuzko lehiaketan aurkeztuko. Jarduera bakoitzerako talde bana aurkeztzen herri bakarrenetakoa da.



AIURRI



HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 9

ANDOAIN Informazioa

Ataria, Zerga bilketa eta hondakinen informazio puntua tokiz aldatu dituzte. *Anbrosia Olabide.*

OSTIRALA 10

ANDOAIN Agenda 21

Udalbatza berezia, ikasleen eskutik. Ikasturte honetan, "Hondakinen kudeaketa" gaia landu dute. **11:00, Udaletxea.**

ANDOAIN Musika

"Noche Sabinera", Joaquin Sabinaren musikariaren eskutik. Madrilgo kantariaren errepertorio ezaguna eskainiko dute. **20:00, Bastero. 20 euro.**

LARUNBATA 11

TOLOSALDEA Elkarretaratzea

Ospitale publikorik ez duen eskualde bakarra izanik (Andoain barne), TOPA erakundeak elkarretaratzea deitu du: "Osasun Sailak zor dizkigu 125 milioi euro baino gehiago itzuli behar dizkigu". **11:00, Trianguko plaza. Tolosa.**

IGANDEA 12

URNIETA Plater tiraketa

Antonio Gabirondo memoriala, Urnietako Santa Kruz elkartearen eskutik. Kompak Sporting erako plater tiraketa. **09:00-13:00, Arkale.**

ASTEARTEA 14

URNIETA Antzerkia

'Ametsen tenploa' antzezlan, Egape ikastolako aktoreen eskutik. Joxe Mari Berasategiren zuzendaritzapean. **18:30, AEK euskaltegia.**

OSTEGUNA 16

ANDOAIN Plenoa

Udal agintaldiko azken plenoa. **19:00, Udaletxea.**



lazko antzezlaneko argazkia. AIURRI

URNIETA Antzerki emanaldia

Froutxoak antzezlan, Joxe Mari Berasategiren zuzendaritzapean. Sinopsia: "Froutxoak Euskal Frouzenen jaioko dira eta planeta guztitik turista piloa etorriko da, ikuskizun mundiala izango baita". **18:00, Lekaio. Maiatzak 11, larunbata.**

OSTIRALA 17

ANDOAIN Erakusketa

"Emeek emana" argazki erakusketa ikusteko azken eguna. **Ohiko ordutegia, Bastero.**

ANDOAIN Musika

Kamerata Oiasso hari musika kontzertua. 19:00tan kontzertu pedagogikoa eskainiko dute, dohainik. **20:00, Bastero. 10 euro.**

LARUNBATA 18

ANDOAIN Biltzar Nagusia

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak urteko biltzar nagusia deitu du. **10:30, Bastero.**

ANDOAIN Maiatzeko azoka

Trianaren eskutik, maiatzeko azokara Gipuzkoa osoko flamenko taldeak hurbilduko dira. **Egun osoan zehar, Nafarroa plaza.**

IGANDEA 19

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Hai, ametsen arrantzalea, adin guztientzat. **17:00, Bastero.**

ASTELEHENA 20

ANDOAIN Ate irekiera

Galardi Udal Haur Eskolan matrikulatzeko epea zabalduko da, maiatzaren 20tik ekainaren 1era. Izen-ematea Basteron (10:00-13:00; 16:30-19:30). Ate irekierak antolatu dituzte maiatzaren 20rako eta 27rako. **16:30, 17:30, Galardi.**

OSTIRALA 24

URNIETA Pailazoaren emanaldia

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren "Musua" ikuskizuna. Sarrerak Urnietako BKN eta Andoaingo BKNn eta Enaitzan salgai, 7 eurotan. **17:30, Egapeko jolastoki estalia.**

ANDOAIN Dantza emanaldia

Hogar Extremeñoren kultur astean dantza emanaldia: Zuena, Donostiako Etxe extremeñoa eta Urki. **20:00, Bastero.**

IGANDEA 26

ESKUALDEA Hauteskundeak

Udal hauteskundeak, alkatea eta zinegotziak aukeratzeko. **Jarraipena: Aiurri.eus webgunea.**

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Vitoria, 3 de marzo


Larunbata, 11:
19:30, 22:00.
Igandea, 12:
19:30.
Astlehena, 13:
19:30; 22:00.

Mia y el leon blanco

Larunbata 11 eta
igandea 12: 17:00.

Gracias a Dios

Larunbata, 18:
19:30, 22:00.
Igandea, 19: 19:30.
Astlehena, 20:
19:30; 22:00.



SINOPSIAK



Mendi Tour Urnieta 2019

Eguna: Maiatzak 10, ostirala. Ordua: 19:00. Tokia: Sarobe.

Bilbao Mendi Film Festibala Urnietan

WALLMAPU

2018, USA, 6 min.

Zuzendaria: Ben Sturgulewsk.

Andeatako Pehuentxe herri indigenako biztanleen arabera, unibertsoaren jatorrian korapilatzen dira Corralco (Txile) eskualdeko sumendi ikusgarria esploratzen duten eskiatzaileen modernitatea eta mapudungunaren marrua. Ama Lurraren hizkuntzaren orroa, alegia.

RJ RIPPER

2018, USA, 20min.

Zuzendaria: Joey Schusler. Euskal Herrian Estrenaldia.

Gainerako neska-mutikoak ikasten zeuden bitartean, Rajesh Magar bizikletekin ametsetan ibiltzen zen. Egoera ekonomikoa zela eta, ezin zuenez bat erosi, berak egin zuen, bere kabuz, mendiko bizikleta bat. Pedalei eragiten hasi bazen hasi, gogo horri eta bere berezko talentuari esker, mendiko bizikleta gidari lanetan hasi zen profesionalen ondoan. Gaur egun, Nepaleko txapelduna da eta norberaren pasioari tinko eutsi behar zaiola erakusten duen adibide argia, pasio hori iritsiezina begitandu arren.

LIV ALONG THE WAY

2018, Kanada, 23min.

Zuzendaria: Anthony Bonello & Mike Douglas.

Liv Sansoz, artean gaztetxoa zela, Mont Blanc gailurra lehen aldiz jotzeaz batera mendiari loturik biziko zela ohartu zen. Birritan izan da kirol eskaladako munduko txapeldun, eta eskalada mistoan, mendiko eskian eta Base jauzian ere nabarmendu da. Berrogei urterekin, Liv berebiziko erronka bati ekitekotan da: Alpeetako 4.000 metrotik gorako laurogeita bi gailurrak urte bakar batean

EVEREST GREEN

2017, Frantzia, 53min

Zuzendaria: Jean-Michel Jorda.

Everesten, abenturaz harago, errealitate ekologiko eta humano tragikoa ezkututzen da. Hondamendia tontorrean bertan hasten da, 8.848 metrotan, eta Katmanduko zabortege irekietaraino iristen da. Planetako hiririk kutsatuenetako bat da Nepalekoa. Zein da alpinismoaren eta turismoaren arteko aldea? Zer dakar egoera horrek?

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Odile Igarriz
Odilek 9 urte bete zituen maiatzaren 7an. Zorionak eta muxu handiak etxeko guztien partetik.



ANDOAIN
Aimar
Apirilaren 28an 4 urte bete zenituen. Oso ondo ospatu genuen. Muxuak zure familiaren partetik.



URNIETA
Paul Hernandez eta Angel Bueno
Paulek maiatzaren 7an 4 urte beteko ditu eta aitona Angelek maiatzaren 14an. Zorionak bioi eta muxu bana etxeko guztien partez!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea
"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua eta argazkia bidali, herria zehaztuz.
Arantzibia 4-5, behea. Andoain
943 300 732.
Whatsappez:
619 16 35 37
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora herria zehaztuz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 11 eta igandea 12
DIAZ: Kale Nagusia, 19.
943 592 057. Andoain.

URNIETA

Larunbata 11 eta igandea 12
CASTILLA: Urbietza kalea, 7.
943 552 941. Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.



Udal ordezkariak, aurkezlea eta ekitaldiko protagonistak maiatzaren 2an elkartu ziren, Sarobe antzokian. AIURRI

Antia literatur lehiaketa

Azken urteotako joerari eutsiz, Antia literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldia kultur ikuskizunean bilakatu da. Dantzak tarte berezia hartu zuen Urnietako Udalak Sarobe antzokian antolatu zuen ekitaldian

Olatz Lasa URNIETA

Joxe Olaizolaren "Sorgineta" ballet saioarekin ekitaldiari hasiera eman zioten Ainara Ortega, Jagoba Astiazaran eta Jon Ansorena musikariek. Ainara Ortega ekitaldiko aurkezleak antolatzaileen sentimenduak hitz bilakatu zituen: "Poztekoa da urtero jasotzen diren ipuin, kontakizun, amets eta istorioak horrelako ekitaldien bitartez plazaratzea". Musikariez gain, Aukeran dantza taldeko Ane Anza eta Maier Murua dantzariak ere ekitaldia girotu zuten. Epaimahai lanetan Ibon Egaña eta Amaia Mariezkurrena aritu ziren, eta saridun bakoitzari emandako

oroigarriaren diseinua, berriz, Aritz Kabe artistak egindakoa da.

Saridunak

Hiru mailatan antolatzen da Antia literatur sariketa: haurrena, gazteena eta helduena. Irabazle bakoitzak bere idazlaren zati bana irakurri zuen, taula gainera igota. Haurren maila:
1.Sara Intza Mujika: "Ilargi asmatzailea (denboraren makinak)". Saria: Tablet-a.
2.Maddi Arrieta: "Bihotz". Saria: Ebook-a.
3.Malen Tranche: "Kurnea erregearen hilketa". Saria: Ebook-a.

Gazteen maila:
1.Unax Iturrioz: "Zuloak". Saria: 500 euro.
2.Arixen Unanue: "Atearen atzean". Saria: 300 euro.
3.June Tomasena: "Ama". Saria: 150 euro.
Helduen maila:
1.Igor Mercado: "Matxurak". Saria:1.800 euro.
2.İñigo Legorburu: "Trostan". Saria:1.000 euro.

Ekitaldiaren bideoa

Azken urteotako joerari eutsiz, sari banaketa kultur ekitaldi bilakatu dute. Sarobeko azpiegitura baliatuz, dizdira berezia hartu du sariketak. Bideoa Aiurri.eus gunean ikusgai dago.



Lourdes eta Nikanor Lizeaga anai-arrebak urtero-urtero bertaratzen dira. AIURRI

Azkorteko ermitan erromeria

Santa Krutz egunean eta hurrengo egunetan ospakizun ezberdinak antolatu dira Azkorte ermitaren inguruan

Erredakzioa URNIETA

Santa Krutz egunaren inguruan ospakizun ezberdinak egin dira Azkorteko ermitan. Ostiralekoa Urnietako Udalak antolatu zuen. Giro kaskarrak ez zuen jendea erromerian parte hartzera animatu zedin. Aurten ere ez zen aizkolarien ezta harrijasotzaileen erakustaldirik izan, eta meza ondoren trikitilarien eta bertolarien tarte iritsi zen.

Lasartearrak igandean

Igandean Lasarte-Oriako biztanleek egin zuten ospakizuna. Jendetza igo zen, maiatzeko aurreneko igandeko erromeriaz gozatzera. Eguraldia lagun izan zuten, gainera. Ttakun kultur elkarteak antolatu zuen eta egitaraua antzekoa izan zen: meza, erromeria eta herri kirolak. Salda, pintxoak eta edariak eskaini zizkieten hara hurbildu zirenei.



Aurrera Gure Ametsa dantza taldeak larunbatean ospakizuna antolatu zuen. AIURRI



Benetako gertaeretan oinarritutako filma da. Aski ezaguna den kasua, euskal gizartean. AIURRI

"Vitoria, 3 de marzo" filma Basteron ikusgai

Andoainen asteburu honetan estreinatuko da "Vitoria, 3 de marzo" filma. 1976ko egun hartan poliziak erail zituen bost langileren inguruko gertakizunak islatzen dira, fikzioaren bidez. Larunbatetik astelehenera ikusgai dago, ohiko ordutegian

Xabier Lasa ANDOAIN

Lan baldintza hobeak eskatuz Gasteizko milaka langile greba mugagabea burutzen ari ziren 1976ko martxoan, eta testuinguru hartan, hilaren hiruan Zarabaga auzoko San Francisco elizan bildu ziren, asanblada egiteko asmoz. Poliziak bortizki erantzun zien, eta ondorioz, bost langile erail eta ehunka zauritu eragin zituen.

Aurrez, mugimendu asanblario sendoa sortua zen Gasteizen, eta errealtate hori kezagarria egin zitzaion Franco hil ostean oraindik agintzen ari zen diktadurari. Langile mugimendu hori estatu osora zabalduko ote zen beldur zen gobernua, eta errepresio latza erabiliz erantzun zion.

Pelikulak Begoña gaztea du protagonista nagusia, eta bere begietatik deskibatzen dira Gasteizko hiria erabat aztoratu zuten gertaera haiek. Begoña ez ezik, baita bere lagun-mina eta bere familia gatazkaren erdian

murgilduko dira ezinbestean, eta euren bizitza betirako markatuko duen erabakia hartu beharko dute.

Filma maiatzaren lean estreinatu zen, eta orduz geroztik jaso dituen kritikek azpimarratu dutenez, bete-betea asmatu du errekreazio historikoari dago-kionez. Ordu eta erdiz ikuslea entretenitzeko gaitasuna edukitzeaz gain, beste bi bertute onartu zaizkio filmari. Batetik, geure hurbileko historian gertatu zen atal mingarri bat gogorarazten digu. Eta bestetik, mahai gainean jartzen du demokraziak frankismoari eskaini izan dion inpunitatea. Izan ere, nazioartean ezarrita dagoen egiaren, justiziaren eta kalte-ordainaren aldeko printzipioa ez da aplikatu Franco hil osteko berrogei eta gehiago urtetan ez Gasteizen ezta ere gainerako giza eskubideen urraketekin. Biktimek estatuko zein Argentinako epaitegietan errudunen aurkako salaketak jarri dituzte azken urtetan.



Vitoria, 3 de marzo
Urtea: 2018. Iraupena: 90 min. **Zuzendaria:** Victor Cabaco. **Aktoreak:** Ruth Díaz, José Manuel Seda, Alberto Berzal, Mikel Iglesias... **Generoa:** Drama. Benetako gertaeretan oinarrituta. **Ekoizpena:** Eusko Jaurilaritza, ETB, Gariza films.



MAIATZAK 24, OSTIRALA

17:30 URNIETA

Egape ikastolako jolastoki estalia

AURRE SALMENTA HERNANI

• Leokadisti.
Urbietza kalea, 6.

URNIETA

• 2KN okindegia.
M.Yurramendi 2.

ANDOAIN

• Aiurri. Arantzibia plaza.
• Ernaitza liburudenda.
Zumea kalea.

SALMENTA EGUNEAN BERTAN

16:30. Egape ikastolako jolastokiaren atarian.

7€

Antolatzaile

AIURRI

Loguntzaile

